

LEIOAKO UDALA

San Bartolome eta Pinueta auzoetan dauden udal titulartasuneko instalazio soziokultural eta gastronomikoak erabiltzeko araudiaren behin betiko onespena.

Erreklamaziorik aurkeztu ez denez San Bartolome eta Pinueta auzoetan dagoen udal titulartasuneko instalazio soziokultural eta gastronomikoen erabilerarako araudiaren hasierako onespenerari buruzko erabakia jendaurrean jartzeko epearen barruan, 2017ko apirilaren 27ko osoko bilkuran onartutako erabaki hori behin betiko bihurtzen da, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen Legeak 49. artikuluan c) letran xedatutakoari jarraituz, apirilaren 21eko 11/1999 Legeak emandako idazketan. Lege horrek adierazten du araudi hau Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen Legearen 65.2. artikuluan ezarritako epea amaitu eta hurrengo egunean sartuko dela indarrean, testu osoa Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratzen denetik aurrera. Araudi hau behin betiko onartzearen aurka, administrazioarekiko auzi-errekurtoa jarri ahal izango da Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzien Salan, bi hilabeteko epean, gai hau argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

SAN BARTOLOME ETA PINUETA AUZOETAN DAUDEN UDAL TITULARTASUNEKO INSTALAZIO SOZIOKULTURAL ETA GASTRONOMIKOAK ERABILTZEKO ARAUDIA

1. artikulua. — *Hitzaurrea*

Leioako Udalak udal titulartasuneko instalazio soziokultural eta gastronomikoak ditu San Bartolome eta Pinueta auzoetan (aurrerantzean, *txokoak*).

Txoko horiek Leioan bizi diren eta erroldatuta dauden herritar guztien eskura daude, baina berezitasun batzuk dituzte, haien kokapena, sorrera, jatorria eta abar kontuan hartuta, araudi honetan kontuan hartzen direnak.

San Bartolomeko kultur aretoaren eraikina eraberritu ondoren, txokoa izateko gune bat egokitu zen bertan, Zuhatzu txokoa izenekoa. Erroldatutakoek gozatzeko aisialdirako gune bihurtu da.

Bestalde, Gaztelubideko udal bulegoa hartzen duen eraikin berriztatu berrian, Leioako auzoetako bizilagunentzako beste elkargune bat dago. Horregatik, eskatzaileek txoko gisa erabili ahal izango dute, araudi honen muga barruan.

Era berean, Leioako Udalak nabarmendu nahi du Leioako elkarteek udalerriko gizarte-sarean egiten duten lana eta daukaten garrantzia, batik bat, auzoetan dauden elkarteak. Hori dela eta, Leioako Udalak ere eskatzaile izateko eskubidea ematen die elkarte horiei, eta horiek ere araudi honetan zehaztutako mugak dituzte.

2. artikulua. — *Xedea*

Leioako Udalak, apirilaren 2ko 7/1985 Legeak (Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen) 4.1. artikuluan a) letran aitortutako bere burua antolatzeko ahalak eta Udalarai aitortutako eskumenak erabiliz, kultura-zerbitzua ezarri du jauregiko zaindariaren etxean (aurrerantzean, *txokoa*) eta kultur aretoan horretarako egokitutako lokalak gune soziokultural eta gastronomiko gisa erabiltze aldera.

Ordenantza honen xedea da aipatutako txokoen aldi baterako erabilera, ekintza zehatz baterako zein batzuetarako, eta baimendutakoek egin beharreko erabilera arautzea.

Udal lokalak erabili nahi dutenek aldeztu aurretik lortu behar dute Udalaren baimena.

3. artikulua. — *Eskatzaileak*

1. Eskatzailezat joko da pertsona talde baten izenean (aurrerantzean, *erabiltzaileak*) txokoa eskatzen duen pertsona fisikoa. Pertsona horiek eskatzaileak egindako eskaeraren arabera baliatuko dute txokoa.

2. Eskatzaileak zerbitzua baliatuko duen erabiltzaileetako bat izan beharko du nahitaez.

3. Eskatzaileak honako hauek izan daitezke:

a) Leioan erroldatuak eta bertan bizi direnak, eta adin nagusikoak.

b) Irabazi-asmorik gabeko elkarteak, egoitza soziala Leioan dutenak edo beren jardueren zati handi bat Leioan egiten dutenak, baldin eta Leioako Udalak halakotzat hartzen baditu edo elkarteen udal erregistroan inskribatuta badaude.

4. Ezingo dute eskaerarik egin araudi honetan ezarritako baldintzak betetzen dituzten pertsona fisikoek, baldin eta eskaera egiteko ezarritako baldintzak betetzen ez dituzten pertsonen edo erakundeen txokoa erabiltzeko aukera emateko bada, edo ezarritako lehentasunak betetzea saihestu egin nahi badute.

4. artikulua. —*Eskatzaileentzako mugak*

1. Eskatzaile guztiak 18 urte beteta izango dituzte eskaera egitean.

2. Eskatzaile guztiak Udalaren lehenespen-eskubidearen mende egongo dira, eskubide horrek, antolaketa-arrazoien batengatik, zerbitzuak emateko arrazoien batengatik edo beste edozein arrazoientzat, edozein erabilera-eskaera baliogabetzen badu. Horrelakorik gertatuz gero, Udalak, bere irizpidearen arabera, erabilera-eskubide berezia eman ahal izango du.

3. 3.1.2 artikuluan zehaztutako elkarteak beren legezko ordezkariak edo eginkizun hori eskuordetu dietenek ordezkatuak dituzte.

4. Eskatzaile guztiak, bai eta eskaeran aipatzen den erabiltzaile taldeak ere, txoko bakarra eskatu ahal izango dute eguneko, ezarritako ordutegian, eta ezin izango da inoiz denbora-zatikatzetik egin (zatikatzek orduka, egun erdika eta abar). Eskaera bakarra egin ahal izango da pertsona bakoitzeko, egun eta txoko baterako, eskatutako egunaren aurreko hilaren 1etik 15era bitartean.

5. Eskatzaile guztiak, bai eta erabiltzaile guztiak ere, araudi honetan ezarritako mugak bete beharko dituzte, eta eskaera egitean, araudiari men egingo diote.

6. Emandako baimenak pertsonalak eta besterenezinak dira, eta, beraz, ezin dira inolaz ere eskualdatu eskatzaileen eta erabiltzaileen artean. Hortaz, nahitaez beste eskaera bat egin beharko da, edo egiaztatu eskatzailea ezin izan dela gitea joan.

7. Eskatzaileak bere izaera galduko du 12. artikuluan zehaztutako kasuren bat gertatuz gero.

8. Hurrengo hilabeteko zozketa igaro ondoren, eta zozketa egiten den hilabetearen barruan betiere, eskatzaileek eskaera gehiago egin ahal izango dituzte, edo egunak edo txokoak aldatu, betiere libre dauden egun edo instalazioetan. Sartzeko hurrenkeraren arabera hartuko dira kontuan.

5. artikulua. —*Eskaerak*

1. Eskaera egiteko, eskatzaileak mezu elektronikoa bidali beharko du sac01@leioa.net edo sac02@leioa.net helbide elektronikotara, edo, bestela, Udalaren Herritarrentzako Arreta Zerbitzura joan beharko du jendearentzat zabalik dagoen ordutegian, eta eskaera-orria bete, gutxienez txokoa erabili nahi den hilaren aurreko hilabeteko lehen hamabost (15) egunetan.

2. Epea igarotakoan eskatu ahal izango da, baldin eta erreserbaren bat badago eta Udalak beharrezko zerbitzu guztiak kontratatu ahal baditu.

3. Eskaera-orrian edo helbide elektronikoa honako datu hauek bete beharko dira:

1.1 Izena eta bi abizenak.

1.2 NAN-zenbakia.

1.3 Helbidea.

1.4 Harremanetarako telefono-zenbakia.

1.5 Eskatutako txokoa.

1.6 Jaioteguna.

1.7 Eskatutako eguna.

1.8 Erabiltzaileen kopurua.

1.9 Eskaeraren arrazoia.

1.10 Ordez kariaren izena eta IFK, elkarteen kasuan.

Izapideen eskuliburuan jasotako inprimaki estandarren arabera egingo da eskaera.

6. artikulua. — *Baimenak ematea, erresebak baieztatzea eta deuseztatzeak*

1. Eskaera egin eta, hala badagokio, antzemandako akatsak zuzendu ondoren, Udalak txokoa erabiltzeko eskubidea eman edo ukatuko du, Alkatetzaren dekretu bidez. Hilabetean ebatzi ezean, administrazio-isiltasunez ezetsizat joko da.

2. Txokoa erabiltzeko eskubidea ematea ebatzi aldera, Udalak 3. eta 4. artikuluetan ezarritako irizpideak eta lehenetsunak hartuko ditu kontuan.

3. Egun bererako eskaera bat baino gehiago egonez gero, zozketa egingo da txokoa erabili nahi den hilaren aurreko hilaren 16an (edo hurrengo egun baliodunean). Interesdunei e-mailez adieraziko zaie egun eta ordu zehatza.

4. Udalak, arrazoituta, eskaera ukatu edo edukia murriztu ahal izango du.

5. Era berean, baimenak errebotatu ahal izango dira, kalte-ordainik jasotzeko eskubiderik gabe, gerora sortutako inguruabarrek, behar bezala justifikatuta, edo interes publikoak hala gomendatzen dutenean.

6. Eskaeran txokorako baimenduta dagoen edukiera baino lagun gehiago bertarazten badira edo 12. artikuluko kasuren batengatik zigortuta badaude, baimena ukatzeko arrazoia izango da.

7. artikulua. — *Edukiera*

1. Erabiltzaileen kopuruak, eskatzailea barne, ezingo du gainditu txokoetarako ezarritako edukiera hauek:

— Zuhatzu txokoa: 24 lagun.

— Gaztelubide txokoa: 25 lagun.

8. artikulua. — *Erabiltzeko ordutegia*

Egun bakoitzeko, eskaera bakarra baimendu ahal izango da.

Oro har, Zuhatzu txokoa erabiltzeko ordutegi hau ezarri da: 10:30etik aurrera; Gaztelubiderena, berriz, 11:30etik aurrera.

Astelehenetik ostegunera, ixteko ordua hurrengo eguneko 00:30ak arte izango da.

Ostiral, larunbat eta jaiegunen bezperetan, ixteko ordua hurrengo eguneko 01:30era arte izango da.

Igandetan, baimenak aipatzen duen eguneko 10:30etik hurrengo eguneko 00:30era arte.

Ezin izango dira abenduaren 25ean eta urtarrilaren 1ean eskatu. Txokoak aipatutako egunetan erabili ahal izango dira, baldin eta abenduaren 24an edo 31n lortzen badira, betiere kontuan hartuta egun horietan ez dela garbiketa-, irekiera- eta mantentze-zerbitzurik egongo.

Ordutegi horren barruan, erabiltzaileek komeni zaien ordutegian erabili ahal izango dituzte lokalak (bazkaria, askaria, afaria).

Txokoaren barruan daudenean, 22:00etatik aurrera, zuhurtziaz jokatu eta zaratak, ozenki hitz egitea, abestiak eta abar saihestu beharko dituzte, litekeena baita eragozpenak sortzea edo kanpora ateratzea.

Lokaletik irtetean, 22:00etatik aurrera, ez da ate ondoan edo inguruan egon behar, eta auzokoentzat gogaikarriak izan daitezkeen oihuak eta iskanbilak saihestuko dira.

9. artikulua. — *Tasak*

1. Tasak dagokion ordenantza fiskalak arautuko ditu.

2. Tasak arau hauen arabera ordainduko dira:

a) Instalazioen eskatzaileak ordaindu beharko du.

b) Baimena eman ondoren ordaindu beharko da, betiere txokoa benetan erabili aurretik.

3. Ordaindutako tasak itzultzeko eskubidea duten erresebak deuseztatzea behar bezala

justifikatutako arrazoiengatik soilik onartuko da.

10. artikulua. —*Eskatzaile eta erabiltzaileentzako debekuak*

Bai eskatzaileak bai lokalen gainerako erabiltzaileek honako debeku hauek bete beharko dituzte:

1. Mahaiak, aulkiak edo eraikinaren barruan dagoen beste edozein objektu ateratzea.
2. Kanpoan sua egitea, hala nola parrilak, barbakoak edo bero-foku bat eragingo duen beste edozein objektu erabiliz.
3. Lokala eskaeran adierazitakoaz bestelako helburu baterako erabiltzea.
4. Lokala erabili ondoren, janaria, edariak, zaborra edo aldeztuak aurretik eraikinean ez zegoen beste edozein gai uztea.
5. Kanpoaldean musika-ekipamenduak edo antzekoak jartzea, Udalaren berariazko baimenik gabe.
6. Musika-ekipamenduak edo antzekoak barruan piztea edo martxan jartzea 65 dezibelatik gorako bolumenez.
7. Eskatzaileak hirugarren pertsona bati lagatzea haren erabilera.
8. Titulartasun publikoko lokal gisa, eta tabakoa erretzea arautzen duen legeria betetzeko, erabat debekatuta dago txokoan erretzea. Halaber, erabat debekatuta dago dirua erabiliz apustu-jokoetan aritzea txokoan.

11. artikulua. —*Eskatzailearen betebeharrak*

Eskaera sinatu zuen pertsona, edo, hala badagokio, ordezkatzeko duen erakundea, txokoa erabiltzen ari bada, txokoan egiten den jardueraz arduratuko da eta barne-araudia betetzeko konpromisoa hartuko du.

Txokoaren erabiltzaileek kontserbazio- eta garbitasun-egoera ezin hobean eduki beharko dute txokoa, eta istilurik edo, oro har, eraikinari edo ekipamenduari kalte egin diezaioketen ekintzarik gertatzea ekidindo dute.

Era berean, udal arduradunen jarraibideak bete beharko dituzte. Eskura dauzkaten eremua eta materiala beren berezko xedearan arabera erabili, eta ondasunei eta pertsoneri kalte eraginez gero, haietaz arduratu beharko dute.

Bai eskatzaileak bai lokalen gainerako erabiltzaileek dagozkien betebeharrak hauek izango dituzte:

1. Eskaera egitea, tasak ordaintzea, eta debekuak eta ordutegia errespetatzea, bai eta Udalak onuradunari helarazten dion edozein ohar ere (erantzukizun zibileko aseguruia eskatzea barne).
2. Giltzak itzultzea.
3. Iradokizunen eta kalteen orria erabiliz, egindako edozein kalte jakinaraztea.
4. Eraikina eta horren barruan dauden objektuak zaintzea, bai eta gertaturiko gorabeheren berri emateko betebeharrak hartzea ere.
5. Erabili ondoren, argiak itzaltzea, gasaren giltza ixtea, tresna elektrikoak itzaltzea (hala behar ez dutenak izan ezik), ateak eta leihoak itxita daudela ziurtatzea, erabilitakoa jasotzea eta txokoa erabiltzeagatik sortutako zaborra ateratzea, birziklatzeko bereizi ondoren.
6. Ordenantza hau eta Udalak eskatzaileari isilbidez, ahoz edo idatziz helarazten dizkion edozein jarraibide betetzea.
7. Txokoan egiteko eskatu den jardueraren kontrola ahalbidetzea Udaleko langileei eta Udalbatzako kideei.
8. Txokoaren barruan dagoen materiala eta ematen diren zerbitzuak txukun eta garbi edukitzea eta dagokien moduan erabiltzea, bai eta adierazten diren jarraibideak betetzea ere.
9. Osasun-agintarien jarraibideak, higie- eta osasun-segurtasuneko protokoloarekin batera betetzea.

12. artikulua. —*Arau-hausteak eta zehapenak*

Apirilaren 2ko 7/1985 Legeak (Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen) 139. artikuluan

eta hurrengoetan udal txokoen erabilerari buruz ezarritakoa betez, arau honetan jasotako betebeharrak, debekuak edo mugak ez betetzeagatiko arau-hausteen eta zehapenen motak ezartzen dira.

Txokoa erabiltzen dutenek udal arduradunen jarraibideak bete beharko dituzte. Eskura dauzkaten eremua eta materiala beren berezko xedearen arabera erabili, eta ondasunei eta pertsoneri kalte eraginez gero, haietaz arduratu beharko dute.

Udaleko langileek egin beharreko ikuskapenak egingo dituzte, eta erabiltzaileek araudi hau betetzen dutela egiaztatuko dute, arau-hauste administratiboak diren jarduketak eta ez-egiteak ezartzeko.

1. Araudi honetan jasotako arau-hausteak arinak, astunak eta oso astunak dira.

1.1. Oso arau-hauste astunak honako hauek dira:

1.1.1. Txokoa dagokion baimenik gabe eta ezarritako tasaren edo fidantzaren zenbatekoak ordaindu gabe erabiltzea.

1.1.2. Dagokion baimena duen pertsonari edo taldeari txokoa erabiltzen ez uztea.

1.1.3. Adingabeei txokoa sartzen laguntzea gurasoak edo tutoreak bertan egon gabe.

1.1.4. Erabilera jarraitua eragozten duten kalteak nahita eragitea, bai erabiltzeko dauden instalazioetan eta materialean, bai eraikinean.

1.1.5. Ezarritako itxiera-ordua ordubete baino gehiagoz gainditzea.

1.1.6. Erabilera baimendua ez den beste pertsona bati lagatzea.

1.1.7. Zehapen-espeditentea hasi aurreko urtean zehatua izatea, bi arau-hauste arin edo arau-hauste astun bat egiteagatik.

1.1.8. Txokoaren erabiltzaileen eskura jartzen diren instalazioak, zerbitzuak eta materiala behar ez bezala erabiltzea, eta horiei kalte egitea edo arrazoirik gabeko arriskua eragitea.

1.1.9. Ateak, leihoak eta gasaren giltzak ez ixtea eta alarma ez jartzea.

1.1.10. Tabakorik gabeko gunea izatea ez errespetatzea.

1.2. Arau-hauste astunak honako hauek dira:

1.2.1. Eskaeran jasotako daturen bat faltsutzea, baldin eta datu horiek erabakigarriak badira baimena emateko, hargatik eragotzi gabe jurisdikzio eskudunera jotzea.

1.2.2. Musikako, megafoniako eta abarretako ekipamenduen bidez, 65 dezibelek gorako gehiegizko zarata eragitea.

1.2.3. Txokoa araudi honetan ezartzen denaz bestelako helburu baterako erabiltzea.

1.2.4. Kanpoan sua egitea, dela parrila, barbakoa eta abar, dela beste edozein bero-foku erabiliz, baldin eta eraikuntzan eta instalazioan arriskua edo herritarrengan alarma eragin badezakete.

1.2.5. Txokotik mahaiak, aulkiak edo beste edozein material ateratzea, inolako justifikaziorik gabe.

1.2.6. Zehapen-espeditentea hasi aurreko urtean zehatua izatea, arau-hauste arin bat egiteagatik.

1.2.7. Udalari txokoa sartzeko giltzak ez itzultzea erabilera amaitu eta 48 orduko epean.

1.3. Arau-hauste arinak honako hauek dira:

1.3.1. Araudi honen 8. artikuluan jasotako edozein betebeharrak ez betetzea.

1.3.2. Elikagaiak edo norberaren erabilerarako beste objektu batzuk sartu, eta txokoa erabiltzeko baimendutako aldia amaitzean ez kentzea.

1.3.3. Eskura dauden tresnetan edo instalazioetan kalteak eragitea, horiek erabiltzeko ezarritako araudia ez betetzeagatik edo behar ez bezala erabiltzeagatik.

1.3.4. Alkateak araudi honen edo hura betearazteko ematen dituen jarraibideen edukiaren beste edozein arau-hauste.

2. Aurreko zenbakietan jasotako arau-hausteei honako zehapen hauek ezarriko zaizkie:
 - 2.1 Oso arau-hauste astunak: 1.500 eta 3.000 euro bitarteko isunez zehatuko dira, eta eskatzailea nahiz erabiltzaileak ezin izango dira txokora sartu bost urtez.
 - 2.2 Arau-hauste astunak: 751 eta 1.500 euro bitarteko isunez zehatuko dira, eta, egileak edo egileek aurretik astuntzat edo oso astuntzat jotako beste zehapen bat jaso badute, eskatzailea nahiz erabiltzaileak ezin izango dira txokora sartu bost urtez.
 - 2.3 Arau-hauste arinak: 200 eta 750 euro bitarteko isunez zehatuko dira, eta, egileak edo egileek aurretik astuntzat edo oso astuntzat jotako beste zehapen bat jaso badute, eskatzailea nahiz erabiltzaileak ezin izango dira txokora sartu urtebetez.

3. Arau-hauste arintzat jotako arau-haustearen egilea aurretik astuntzat edo oso astuntzat jotako arau-hauste baten egile gisa zehatua izan bada, arau-hauste astunenerako ebatzi den aldiari txokora ezin sartzeko zehapen erantsia jarriko zaio. Era berean, arau-hauste astunagatik zehapen-espeditentea izapidetzen den kasuan adierazitako zehapen erantsia ezarriko da.

4. Arau-haustearekin batera adierazpen edo eduki xenofobo, arrazista edo sexistak badaude, zehapen-mailarik handiena jarriko da.

5. Agerikoa ez den edozein arau-hauste faltatzat har daiteke, eta ez arau-haustetzat.

13. artikulua. —*Zehapen-espeditentea izapidetzea*

1. Espeditentea urriaren 1eko 40/2015 Legean (Sektore Publikoaren Araubide Juridikoarena) eta hura garatzen duten gainerako arauetan ezarritakoaren arabera izapidetuko da.

Prozeduraren instruktorea izendatuko da, lehen adierazitako araudiari jarraituz.

Zehapen-prozedurak ebazteko organo eskuduna Alkatetza izango da.

2. Araudi honetako edozein arau-hausteren erantzule baimenaren eskatzailea izango da, hargatik eragotzi gabe araudi honetan jasotako arau-hausteen egileei dagozkien espeditentak hastea, eta txokoaren erabiltzaile guztiak jarritako zehapenaren erantzule solidarioa izatea. Erabiltzaileetat joko da txokora parte hartzen duen pertsona oro, txokoak xede dituen jarduerak egiteko, baldin eta Udalak horretarako baimena eman badu, egindako eskaera oinarri dela.

3. Erabiltzaileak araudi honetan jasotako betebeharrak isilbidez edo berariaz ez betetzeagatik izango dira zehapenak, eta egoera aztertu ondoren ebatziko dira.

4. Hiru aldiz kargu hartzen denean, eskatzaileak ezin izango du erabilera eskatu urtebeteko epean, hirugarren ez-betetzetik zenbatzen hasita.

14. artikulua. —*Udalaren betebeharrak*

1. Udalak mantendu beharko du txokoa: besteak beste, garbiketa, ura, gasa eta argindarra ordaintzea, desagertu edo erabili ezin den materiala berriz jartzea eta normaltasunez erabiltzearen ondorioz hondatzen diren instalazio guztiak konpontzea.

2. Baimena emango zaion eskaera zehaztu ondoren, Udalak beharrezko kudeaketa egingo du txokora sartzeko ahalbidetzeko edo txokora sartzeko giltzak emateko.

Leioa, 2020ko --aren --- (a). —Iban Rodriguez Etxebarria alkatea.